



PRENTSARAKO OHARRA

## **BIZKAIKO BATZAR NAGUSIETAKO OSOKOAK AHO BATEZ ONETSI DAU GURASO ALIENAZINOAREN SINDROMEA EZ ERABILTEA ADINBAKOEN ZERBITZUAN**

- **Talde guztiak agertu dira instrumentalizazioak gurasoen arteko gatazketan euki ahal izan dauen efektua aztertzearen eta Eusko Jaurlaritzari adinbakoen arretan eta babesean balorazinarako erabilten diran erespideak azertu daizan eskatzearen alde, sexu gehiegikerien biktima diren adinbakoei ahalik eta erantzun egokiena emoteko.**
- **Beste alde batetik, gehiengoz onetsi da genero indarkeriaren biktimei emoten jaken arreta psikologiko zerbitzua hobetzea eta kasu horreen erregistrarako erespideak lurraldeko erakunde guztietan homogeneizatea.**

*(Gernikan, 2020ko urtarrilaren 22an).*- Gaur egin dan Osokoan Bizkaiko Batzar Nagusietako talde politiko guztiek aho batez onetsi ditue hainbat neurri, amei euren seme-alaben kustodia kentzeko orduan balorauko dan erespideetako bat Guraso Alienazinoaren Sindromea (SAP) izenekoa edo “gurasoen arteko gatazketan adinbakoen instrumentalizazioa” izan ez daiten. Arauz Besteko Proposamena EH Bildu taldeak aurkeztu dau, eta zenbait neurri jasoten dituan zuzenketa-eske transakzionala sinatu daben ganerako talde guztien aldeko botoa jaso dau.

Emondako 47 botoetatik aldeko 47 boto erregistrau dituan proposamenak, Umeen Zerbitzuko profesionalen beharra indartzeko eskatzen deutso Gizarte Ekintzako Sailari, umeen kontrako sexu gehiegikeriaren eta indarkeria matxistaren arloetan etenbako prestakuntzea emonez. Horrez gain, Arauz Besteko Proposamenak, datoza sei hilebeteetan, BALORA tresnaren bitartez identifikau diran babes falta egoerak aztertze eskatzen dau, “adinbakoen instrumentalizazioa gurasoen arteko gatazketan” itemak euki ahal izan dituan efektuak, batez be.

Azterketa horren emaitzak Bizkaiko Batzar Nagusietara eta Eusko Jaurlaritzara bialdu beharko dira. Eusko Jaurlaritzari lortutako emaitzak aztertze eta 230/2011 Dekretua aztertze orduan kontuan izateko eskatzen jako. Dekretu horrek, umeen arretarako eta babeserako udal eta lurralde mailako gizarte zerbitzuetan arriskuko egoeren larrialdia baloretako tresna onetsi dau. BALORA izenagaz be ezagutzen da.

Amaitzeko, onetsi dan Arauz Besteko Proposamenak eskaria egiten deutso Eusko Jaurlaritzari, une honetan umeen kontrako sexu gehiegikeriaren arloan emoten dan erantzunaren ganeko gogoetarako prozesua egin eta beste eredu batzuk erabilteko aukerea aztertu daian, Save the children GKEaren laguntzagaz Katalunian ezarrita dagon Barnhaus eredu, adibidez.

Bea Ildia EH Bilduko bozeroalearen eretziz, akordioa “inflexino puntua” da, genero indarkeriaren biktima diran emakumeei eta neskatoei emoten jaken babes handitu egiten dauelako. “Balizko instrumentalizazioaren atxakiagaz ama bati seme-alabaren tutoretza kentzen jakon azkenengo aldia izango dala” uste eta gurako leukela adierazo dau.

Elkarrekin Bizkaia taldearen izenean, Eneritz de Madariagak akordio horren beharra defendidu dau, “instrumentalizetako gaitasuna emakumeei baino emoten ez deutsen” eta “gizonei emakumeei eta seme-alabei baino sinisgarritasun handiagoa emoten deutsen” erespidea aplikau izana kritikau eta gero.

Juan Oterminek (Euskal Sozialistak) argitu dauenez, Umeen Foru Zerbitzuak “ez dau SAP” erabilten, eta BALORA Dekretua da “instrumentalizazioa” erabilten dauena. Oterminek, “Batzar honeetako talde guztiek proposamena onesteko erakutsi daben jarrera argia, zintzoa eta proaktiboa” azpimarratu dau.

Euzko Abertzaleak taldeko Elena Coriak “bere konfiantza eta aintzatespen osoa” erakutsi deutse “Adinbakoan Zerbitzuko behargin guztiei”. “Akordio honek ez dogula auto-konplazentzian jausi gura erakusten dau”, esan dau amaitzeko.

Eduardo Andradek (Talde Berezia / PP Bizkaia) bere aldetik, akordioan “danak dauka zentzuna; bitxia da zergaitik ez dan orain arte aplikau”, adierazo dau.

### **Arreta hobea indarkeria matxistaren biktimei**

Osoko Bilkuran, beste Arauz Besteko Proposamen bat onetsi da gehiengoz, indarkeria matxistaren biktimei arreta emoteko beharginen kontratazinorako pleguen ponderazioan biktimek gehien erabilten dituen hizkuntzak sartzeko, azkenengo urteetan udal eta foru zerbitzuetan gero eta gehiago diralako arrotea jasoten daben emakume atzerritarrak.

Horrez gain, Arauz Besteko Proposamenak eskaria egiten deutso Bizkaiko Foru Aldundiari, beste erakundeakaz batera, udalakaz eta mankomunidadeakaz adibidez, emakumeen kontrako indarkeria kasuen bolumenaren eta ezaugarrien erregistroarako sistema homogenea garatzen jarraitu daian.

EH Bilduk aurkeztu eta Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeen zuzenketa-eskea jaso dauen proposamenak hiru talde horreen eta Elkarrekin Bizkaia taldearen aldeko botoak lortu ditu, 47 guztira. Talde Berezia / PP Bizkaia abstenidu egin da.

Beste alde batetik, ez dira onartu Talde Bereziak / PP Bizkaiak aurkeztu dituan hiru proposamen. Proposamen horreetan karga fiskala murriztea, segurtasuna handitzeko neurriak ezartea eta herritarren partaidetzea erreguletao arautegia bultzatzea eskatzen zan. Bata be ez da onartu, proposamena aurkeztu dauen taldearen aldeko boto biak baino ez dituelako jaso.

Lehenengo proposamenaren bozketan, Euzko Abertzaleak, Euskal Sozialistak eta Elkarrekin Bizkaia kontra agertu dira, 37 boto batuz, eta EH Bildu (10) abstenidu egin da. Bigarren proposamenaren bozketan EH Bildu ere kontra agertu da eta, holan, kontrako 47 boto izan ditu. Hirugarren proposamena be ez da onartu, Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak kontra agertu diralako (31) eta EH Bildu eta Elkarrekin Bizkaia abstenidu egin diralako (16).

Elkarrekin Bizkaia taldeak apustu-etxeak erreguletako eta ludopatiaren kontra burruka egiteko aurkeztu dauen Arauz Besteko Proposamena be ez da onartu, talde horren eta EH Bilduren aldeko 16 botoak baino ez ditualako jaso. Euzko Abertzaleak eta Euskal Sozialistak taldeak kontra agertu dira (30 boto) eta Talde Berezia / PP Bizkaia abstenidu egin da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA

## **EL PLENO DE LAS JUNTAS GENERALES DE BIZKAIA APRUEBA POR UNANIMIDAD NO UTILIZAR EL SÍNDROME DE ALIENACIÓN PARENTAL EN EL SERVICIO DE MENORES**

- **Todos los grupos han apoyado analizar el efecto que la cuestión de la instrumentalización en conflictos entre progenitores ha podido tener y pedir al Gobierno Vasco analizar los criterios de valoración en la atención y protección a menores para dar mejor respuesta a menores víctimas de abuso sexual.**
- **Por otro lado, se ha aprobado por mayoría mejorar el servicio de atención psicológica a víctimas de violencia de género así como homogeneizar los criterios de registro de estos casos en todas las instituciones del territorio.**

*(Gernika, a 22 de enero de 2020).*- Todos los grupos políticos de las Juntas Generales de Bizkaia han aprobado por unanimidad en el Pleno celebrado hoy una batería de medidas para impedir que el llamado Síndrome de Alienación Parental (SAP) o “instrumentalización de menores en conflictos entre progenitores” sea uno de los criterios a valorar para la retirada de la custodia a madres de sus hijos o hijas. La Proposición No de Norma ha partido del grupo EH Bildu y ha obtenido el respaldo del resto de los grupos que han firmado una enmienda transaccional que contempla varias medidas.

La propuesta, que ha registrado 47 votos a favor de 47 votos emitidos, insta al Departamento de Acción Social a reforzar el trabajo de profesionales del Servicio de Infancia, ofreciéndoles formación continua en los ámbitos de abuso sexual infantil y violencia machista. La PNN insta además a este departamento a que analice en los próximos seis meses las situaciones de desprotección identificadas mediante la herramienta BALORA y especialmente, el efecto que el ítem “instrumentalización en conflictos entre progenitores” haya podido tener.

Los resultados de este análisis tendrán que ser remitidos a las Juntas Generales de Bizkaia, así como al Gobierno Vasco, al que instan a que estudie los resultados obtenidos y los tenga en cuenta para analizar el Decreto 230/2011 que aprueba el instrumento de valoración de la gravedad de situaciones de riesgo en los servicios sociales municipales y territoriales de atención y protección a la infancia, decreto también conocido como BALORA.

Por último, la Proposición No de Norma aprobada insta al Gobierno Vasco a realizar un proceso de reflexión sobre la respuesta que actualmente se ofrece en el ámbito del abuso sexual infantil y se estudie la utilización de otros modelos como el Barnhaus establecido en Cataluña con el apoyo de la ONG Save the children.

Bea Ilardia, portavoz EH Bildu, ha calificado el acuerdo de “punto de inflexión”, añadiendo que se aumenta la protección a mujeres y niñas de la violencia de género y ha mostrado su confianza en que “no se retire ni una tutela más a una madre arropada en una supuesta instrumentalización”.

En nombre de Elkarrekin Bizkaia, Eneritz de Madariaga ha defendido la necesidad de este acuerdo tras criticar que se haya aplicado un sesgo “que confiere sólo a las mujeres la capacidad de instrumentalizar” y que ofrece a los hombres más credibilidad que a las mujeres y a sus hijos e hijas.

Juan Otermin (Socialistas Vascos) ha matizado que el Servicio Foral de Infancia “no utiliza el SAP” y que es el Decreto BALORA el que utiliza “la instrumentalización”. Otermin ha subrayado “la actitud clara, sincera y proactiva de todos los grupos de esta Cámara” para aprobar esta propuesta.

Elena Coria, del grupo Nacionalistas Vascos, ha mostrado su “absoluta confianza y reconocimiento a todas las personas que trabajan en el Servicio de Menores”. “Este acuerdo visibiliza que no queremos caer en la autocomplacencia”, ha añadido.

Por su parte, Eduardo Andrade (Grupo Mixto / PP Bizkaia) ha asegurado que en el acuerdo “todo tiene sentido; lo raro es que hasta ahora no se aplicase”.

### **Mejor atención a víctimas de violencia machista**

En la sesión plenaria, se ha aprobado por mayoría una Proposición No de Norma para incluir en los pliegos de contratación del personal de atención a víctimas de violencia machista la ponderación de los idiomas más utilizados por las víctimas, dado el incremento de mujeres extranjeras atendidas en los servicios municipales y forales en los últimos años.

La PNN insta además a la Diputación Foral de Bizkaia a continuar desarrollando, en colaboración con otras instituciones como ayuntamientos y mancomunidades, un sistema homogéneo de registro del volumen y las características de los casos de violencia contra las mujeres.

Esta proposición, presentada por EH Bildu y enmendada por Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos, ha logrado el apoyo de estos tres grupos y de Elkarrekin Bizkaia, obteniendo un total de 47 votos a favor. Grupo Mixto / PP Bizkaia se ha abstenido.

Por otro lado, se han rechazado tres propuestas del Grupo Mixto / PP Bizkaia que pedían la reducción de la carga fiscal, medidas para incrementar la seguridad y una normativa para regular la participación ciudadana. Ninguna ha salido adelante al contabilizar sólo los dos votos favorables del grupo proponente.

En la votación de la primera propuesta, Nacionalistas Vascos, Socialistas Vascos y Elkarrekin Bizkaia han votado en contra, sumando 37 votos, y EH Bildu (10) se ha abstenido. En la votación de la segunda, EH Bildu ha votado en contra, registrándose así un total de 47 votos negativos. La última propuesta no ha salido adelante al contar con el rechazo de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos (31) y la abstención de EH Bildu y Elkarrekin Bizkaia (16).

Tampoco ha logrado el respaldo de la Cámara una PNN para regular las casas de apuestas y combatir la ludopatía planteada por Elkarrekin Bizkaia, al sumar 16 votos a favor de este grupo y de EH Bildu, frente a los 30 en contra de Nacionalistas Vascos y Socialistas Vascos. Grupo Mixto / PP Bizkaia se ha abstenido.